

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak osasuna zaindu eta aldi berean gozoetaz gozatu nahi dutenak dira. Elikadura on batekin beren osasuna zaindu nahi dutenentzat alternatiba ona iruditzen baitzaigu. Izan ere, gure produktuak guztiz osasuntsuak izango dira.

Honetan oinarriturik, bi merkatutan banatuko ditugu gure bezeroak, bezero segmentazioaren arabera:

1. Merkatu masiboa: Gazteak izango dira gure bezero nagusiak, izan ere, haiek dira gozokien kontsumitzaile nagusienak. Hala ere, pertsona helduek ere jan ditzakete litxarrera hauek. Ondorioz, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da. Hau da, 5 urtetik aurrerako bezero guztiei eskeinita dago.



2. Merkatu nitxoa: Gozoki arruntez gain, gatz mineral eta bitaminez hornituriko gozoki bereziak sortuko ditugu, goi-mailako kirolariek entrenamendu garaian indarra eta erresistentzia har dezaten. Beraz, bezero oso zehatzak eta berezitutak dituen merkatua izango dugu hau.

